Loreontzi hutsa

Elaine L. Lindy-k birkontatua

Irudiak: Jennifer Moher

Txinako enperadoreak lehiaketa bat antolatu zuen tronurako hurrengo oinordekoa aukeratzeko. Enperadorea oso zaharra zen eta ez zuen seme-alabarik. Landareak oso gogoko zituenez, honako hau iragarri zuen: enperadorea izan nahi zuen edozein haur jauregira joan zitekeen errege hazi bat hartzera. Handik sei hilabetetara emaitzarik onenak lortzen zituen haurrak lehiaketa irabaziko zuen eta hurrengo enperadorea izango zen.

Pentsa zer nolako urduritasuna! Haziak banatu behar ziren egunean jauregia haurrez gainezka zegoen, itxaropenez beteak. Haur guztiak aukera preziatu batekin itzuli ziren etxera.



Eta hala gertatu zen Jun mutilarekin. Herriko lorezainik onena zen herritarren ustez, eta oso gogoko zituzten bere baratzeko meloiak, piperrak eta lekak. Junek kontu handiz eraman zuen enperadorearen hazia etxera, eskuen artean ongi gorderik eta babesturik lurrera ez erortzeko, baina gehiegi estutu gabe hazia ez zanpatzeko.

Etxean loreontzi bat hartu eta hondoa harri handiekin estali zuen; harrien gainean harri-kozkorrak jarri zituen, eta bukatzeko loreontzia lur emankorraz eta hezeaz bete zuen. Hazia pare bat zentimetroz lur azpira sakatu zuen eta lur arinagoaz estali zuen. Ondorengo egunetan Junek, ezagutzen zituen haur guztiek bezala, loreontzia egunero ureztatu zuen, lurraren azalean lehen hostotxoa noiz sortuko zain.

Junen herrian hazia erne zuela adierazi zuen lehenengo haurra Cheun izan zen. Txaloak eta zorionak erruz jaso zituen. Hurrengo enperadorea seguruenik bera izango zela harrokeriaz esaten zuen, eta erregea izateko trebetasunak haur txikiagoei aginduak emanez praktikatzen zituen. Loreontzian landaretxoa ernetzea lortu zuen hurrengo haurra Ming izan zen, eta hurrengoa, Wong. Jun harrituta zegoen, haur haien arteko inork ez baitzekien berak bezain ondo landareak hazten! Baina Junen hazia ez zen ernetzen.

Laster haziak ernetzen hasi ziren loreontzietan herri osoan zehar. Haurrek hesiak jarri zituzten beren loreontzien inguruan, jendeak nahi gabe —edo nahita—ez iraultzeko. Handik gutxira, Junen herrian dozenaka loreontzitako kimuetan lehen hostotxoak hazten hasi ziren. Baina Junen hazia ez zen ernetzen. Jun kezkatuta zegoen —zein zen arazoa? Junek kontu handiz berriro landatu zuen bere hazia loreontzi berri batean bere baratzeko lurrik emankorrenarekin eta onenarekin. Lur-zokor guztiak txiki-txiki egin zituen. Hazia arreta handiz sakatu zuen eta lurra heze mantendu zuen. Egunero begiratzen zuen loreontzia, baina hala ere hazia ez zen ernetzen.

Herriko gainontzeko haurrek zaintzen zituzten loreontzietan laster hazi ziren zurtoin sendo eta mardulak. Jun triste eta lur jota zegoen. Gainerako haurrek barre egiten zioten.



Sei hilabete pasa ziren. Haurrek landarea jauregira eraman behar zuten eguna hurbiltzen ari zen. Loreontziak distiratsu utzi arte igurtzi zituzten, hostoak kontu handiz zapi batekin garbitu, eta beren jantzirik dotoreenak jantzi zituzten. Zenbait guraso haurrekin batera joan ziren jauregira, landarea tente eta erori gabe eramaten laguntzeko.

“Zer egingo dut nik?”, galdetu zien Junek gurasoei aieneka, leihotik gainerako haurrak jauregira garaile joateko nola prestatzen ari ziren ikusten zituen bitartean. “Nire hazia ez da erne! Nire loreontzia hutsik dago!”

“Ahal izan duzun guztia egin duzu”, esan zuen aitak burua astinduz.

“Jun, eraman iezaiozu loreontzia enperadoreari”, esan zuen amak. “Ahalegin guztiak egin dituzu eta.”

Junek, lotsatuta, bere loreontzi hutsa eraman zuen jauregirako bidean, bere ezker-eskuinean haur piloa zihoala, poz-pozik eta balantzaka beren landare handi-handiekin.

Jauregian, haurrak ilaretan jarri ziren beren landare ederrekin epaiketaren zain. Enperadorea, zetazko tunika jantzirik, oinkada luzez joan zen lehiakideen ilaretan behera, landare bakoitza arreta handiz eta bekozko iluna jarriz aztertzen zuelarik. Junen parera heldu zenean, are gehiago ilundu zuen kopeta eta honela esan zuen, “Zer da hau? Loreontzi huts bat ekarri didazu?”

Junek ahaleginak egin zituen negarrez ez hasteko. “Barkatu berorren maiestatea,” esan zuen Junek, “Ahal izan dudan guztia egin dut. Zure hazia nire lurrik onenean landatu nuen, egunero ureztatu eta zaindu dut. Hazia ez zela ernetzen ikusi nuenean, berriro landatu nuen lur berriarekin. Baina ez zen erne. Barkatu”. Junek burua makurtu zuen.

“Hmm”, esan zuen enperadoreak. Jendearengana itzulirik, oso ozenki hitz egin zuen, han zeuden guztiek entzuteko moduan, “Nik ez dakit nondik atera duten beste haur guztiek beren hazia. Nik banatu nituen hazietatik ezin zen ezer sortu, hazi haiek guztiak aurretik egosita zeudelako!”

Eta enperadoreak irribarre egin zion Juni.

1.
Zertarako antolatu zuen enperadoreak lehiaketa?

(A) Haurrei landareak zaintzen irakasteko.

(B) Hurrengo enperadorea hautatzeko.

(C) Bera zer enperadore handia zen erakusteko.

(D) Landare motarik onena aurkitzeko.

2.
Zer jaso zuen haur bakoitzak enperadorearengandik?

1

3.
Zergatik deitzen zitzaion hazi bakoitzari “aukera preziatua”?

(A) Hazi bakoitzak lehiaketa irabazteko aukera ematen zuelako.

(B) Hazi bakoitza erregearena eta oso garestia zelako.

(C) Hazi bakoitzetik landare eder bat sortuko zelako.

(D) Hazi bakoitzak lorezainik onena izateko aukera ematen zuelako.

4.

Bilatu istorioan hosto baten irudi honen ondoan dagoen pasartea: .
Zerk adierazten du Jun herriko lorezainik onena zela?

1

5.
Hurrengo irudien artean zeinek du Junen loreontziaren itxurarik handiena hazia lehenengoz landatu zuenean?

Ⓐ

Ⓑ

Ⓒ

Ⓓ

6.

Bilatu istorioan lore baten irudi honen ondoan dagoen pasartea: .
Zer erakusten du pasarte horrek Juni buruz?

(A) Ez zekiela zer haziko zen.

(B) Lehiaketa berak irabaziko zuela uste zuela.

(C) Hazia arreta handiz landatu zuela.

(D) Hazia landatzean akats batzuk egin zituela.

7.
Zergatik jarri zituzten haurrek hesiak loreontzien inguruan?

(A) Hostoak garbi mantentzeko.

(B) Jendeak landarea lurrera ez botatzeko.

(C) Lurra heze mantentzeko.

(D) Gainerako haurrek beren landareak ez ikusteko.

8.
Zein izan zen Junek egin zuen lehenengo gauza bere hazia ez zela ernetzen ikusi zuenean?

(A) Hesi bat jarri zuen loreontziaren inguruan.

(B) Hazia sarriago ureztatu zuen.

(C) Gurasoengana jo zuen kexaka.

(D) Berriro landatu zuen bere hazia loreontzi berri batean.

9.
Zergatik egin zioten barre Juni beste haurrek? Erantzuna azaltzeko erabil ezazu istorioan gertatutakoa.

2

10.
Zure ustez, zergatik esan zioten gurasoek Juni bere loreontzi hutsa jauregira eramateko?

1

11.
Zein hitzek deskribatzen du hobe Jun jauregira epaiketara joatean sentitzen zuena?

(A) Lotsatuta.

(B) Harrituta.

(C) Itxaropentsu.

(D) Urduri.

12.
Zergatik ilundu zuen kopeta enperadoreak Junen loreontzia begiratzen zuen bitartean?

(A) Lehiaketaz kezkatuta zegoelako.

(B) Junen loreontzia behar bezain distiratsu ez zegoela pentsatzen zuelako.

(C) Zer pentsatzen zuen ezkutatzen ari zelako.

(D) Ez zekielako Jun zergatik zegoen han.

13.
Zergatik esan zion Junek “Barkatu” enperadoreari?

(A) Lehiaketan tranpa egin zuelako.

(B) Ez zuelako enperadorea izan nahi.

(C) Enperadoreari huts egin ziola pentsatzen zuelako.

(D) Hazia sarriegi ureztatu zuelako.

14.
Zergatik sortu ziren landareak beste haurren loreontzietan?

(A) Beste haurrek lur hobea erabili zutelako.

(B) Beste haurrek beren loreontziak zaintzen zituztelako.

(C) Beren haziak hesiekin babestuta zeudelako.

(D) Beren haziak hazi berriekin ordezkatu zituztelako.

15.
Zure ustez, zer baloratzen zuen gehien enperadoreak pertsona batengan?

(A) Erregea izateko trebetasunak izatea.

(B) Pertsona zintzoa izatea.

(C) Gurasoenganako begirunea izatea.

(D) Lorezain ona izatea.

16.
Zergatik egin zion irribarre enperadoreak Juni?

1

17.
Junek sentipen ezberdinak izan zituen istorioan zehar. Zergatik izan zuen hurrengo sentipen hauetako bakoitza? Azalpena emateko erabil ezazu irakurritakoa.

Itxaropentsu.

1

Harrituta.

1

Lur jota.

1

Original ID	TheEmptyPot
Title	The Empty Pot
Answer code	
Images	